

*2008ko abenduaren 23ko 87/08 Foru Dekretua, ezgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzako Etxean programako banakako laguntzak arautzen dituena.*

Gizarte Politikako Departamentuaren helburu nagusietako bat da ezgaitasuna duten edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen beren etxeetan bizitzeko jarraitzea, eta horretarako beharrezkoa da zaintzarako oinarritzeko beharrak eta autonomia pertsonalerako edo bizimodu independenterako dituztenak bermatzea.

Horretara datoz foru dekretu honetan arautzen diren Etxean programako laguntzak, egoera horretan daudenei eskuragarri jarri nahi baitizkie gizartean beste herritarren antzera moldatzeko zailtasunak arinduko dizkieten bitartekoak.

Azken urteotan, ezintasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzako banakako laguntzak arautzen dituen 2004ko otsailaren 24ko 11/04 Foru Dekretuan araututa zeuden honelako laguntzak. Araudi horri dagokionez, Etxean programatik kanpo gelditzen dira itundu gabeko zentroetako arretarako diru laguntzak, egokiagoa delako Gizarte Politikako Departamentuaren beste arau batzuen barruan horiek sartzea.

Era berena, kontuan hartu behar da geroztik indarrean sartu direla Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Araua eta berori garatzeko Erregelamendua onartzen duen 2008ko apirilaren 29ko 24/08 Foru Dekretua. Araudi hori aplikagarria da, bai foru dekretu honetan jasotzen diren diru laguntzentzat, bai honetan bertan jasotzen diren produktu lagungarrietzat. Azken horiek «laguntza berreskuragarri» bezala kalifikatuta daude, erabiltzaileei produktu batzuk erabiltzeko eskubidea ematen baitzaie eta produktu horiek «eskuratu edo kontratatzeke helburu bakarra hirugarren pertsonen esku jartzea» izan delako, Diru laguntzei buruzko 3/2007 Foru Arauak 2.3 artikuluko bigarren paragrafoan dioen bezala (gero 24/2008 Foru Dekretuaren 3. artikuluan garatua).

Bestalde, 3/2007 Foru Arauaren 20.3.c) artikuluari dagokionez, zuzenean emango diren laguntzak dira programa honetan aurreikusten diren baliabideak, aintzat hartuta arrazoi sozialengatik ematen direla eta bokazio unibertsala dutela, baldintzak betetzen dituzten guztientzat direnez. Hala, bada, laguntza hauek emateko ez dago deialdirik egin beharrik: Eskeraek edonoz aurkez daitezke, arau hauek indarrean dauden bitartean.

Horri dagokionez, foru arau horren 27.2 artikulua dioenari jarraituz, diru laguntzak zehazterik ez dagoen jende kopuru bati zuzentzen zaizkionean, Diputatu Kontseiluak foru dekretuz erabaki behar ditu diru laguntza jakin horiek emateko arau bereziak. Hain zuzen horretara dator foru dekretu hau; beraz, foru dekretu honen bitartez, arlo honetako laguntzen oraindai-noko araudia aipatu diren arau aldaketetara egokitzen da, eta araudi berria Etxean deritzan programaren barnean ezartzen da.

Hori guztia dela eta, Gizarte Politikako foru diputatuak proposatuta, eta Diputatu Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

#### 1. artikulua. Xedea.

Foru dekretu honetan Etxean programako banakako diru laguntzak eta produktu lagungarriak ematea arautzen da, ezgaitasun edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen eguneroko bizitzako jardueretarako autonomia pertsonala eta gizarteratzea bultzatzeko ematen direnak.

*DECRETO FORAL 87/2008, de 23 de diciembre, por el que se regula la concesión de las ayudas individuales del Programa Etxean dirigidas a personas con discapacidad o en situación de dependencia.*

Entre los objetivos prioritarios del Departamento de Política Social se encuentra el de favorecer la permanencia en su domicilio habitual de las personas con discapacidad o en situación de dependencia, para lo que es preciso garantizar que cuenten con los medios necesarios para cubrir sus necesidades de atención, tanto básicas como de autonomía personal o de vida independiente.

En ese marco se sitúan las ayudas del Programa Etxean que regula el presente decreto foral, facilitando el acceso a las ayudas necesarias para que dichas personas vean minoradas sus dificultades para desenvolverse en la sociedad en condiciones igualitarias a las del resto de la ciudadanía.

En los últimos años la normativa de este tipo de ayudas ha venido recogida en el Decreto Foral 11/2004, de 24 de febrero, por el que se regula la concesión de ayudas individuales a personas con discapacidad o en situación de dependencia. Respecto a dicha normativa, quedan fuera del Programa Etxean las ayudas económicas para atención en centros no concertados, dado que resulta más adecuada su regulación en otras normas del Departamento de Política Social.

Asimismo, procede tener en cuenta la entrada en vigor de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y de su Reglamento de desarrollo, aprobado mediante Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril. Dicha normativa ha de aplicarse tanto a las ayudas económicas que establece este decreto foral como a la cesión de productos de apoyo que también se contempla y que se califican como «ayudas recuperables», al existir en este caso un derecho de uso por las personas beneficiarias de productos «cuya adquisición o contratación se ha efectuado con la finalidad exclusiva de entregarlos a terceras personas», tal como se establece en el párrafo segundo del artículo 2.3 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, desarrollado por el artículo 3 del Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

Por otra parte, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 20.3.c) de la citada norma foral, los recursos contemplados en este programa constituyen ayudas a conceder de forma directa, dada su finalidad social y vocación universal para todas aquellas personas que cumplan los requisitos establecidos, sin que proceda la realización de convocatorias para su concesión, al poder presentarse las solicitudes en cualquier momento en tanto las presentes normas se encuentren en vigor.

A tal efecto, el artículo 27.2 de la misma norma foral establece que cuando ese tipo de ayudas vayan dirigidas a una pluralidad indeterminada de personas beneficiarias, el Consejo de Diputados aprobará mediante decreto foral las normas especiales reguladoras de las subvenciones. A dicho fin responde la aprobación del presente decreto foral, mediante el cual se adapta la regulación anterior de las ayudas existentes en esta materia a los cambios normativos señalados, estableciendo su nueva regulación dentro del programa denominado Etxean.

Por lo expuesto, a propuesta de la Diputada Foral de Política Social, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Diputados, en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

#### Artículo 1. Objeto.

Es objeto del presente decreto foral la regulación de la prestación de las ayudas económicas individuales y de los productos de apoyo del Programa Etxean destinados a favorecer la autonomía personal para la realización de las actividades de la vida diaria y para la integración social de las personas con discapacidad o en situación de dependencia.

Foru dekretu honen ondorioetarako, norbait ezgaitasun edo mendekotasun egoeran dagoela joko da, Gipuzkoako Foru Aldundiak edo beste administrazio eskumendunen batek indarrean dagoen araudian ezarritako baremoak aplikatuz halakotzat jo badu.

*2. artikulua. Diru laguntza izan dezaketen laguntzen definizioa eta tipologia.*

Diru laguntza izan dezaketen laguntzen definizioa eta tipologia honako hau da:

A. Banakako laguntza programak finantzatzeko diru laguntzak:

— Gizarteratze programetan sartzeko edo jarraitzeko laguntzak.

— Egoitza baliabideak erabiltzea baztertu eta bakarrik edo beren familia osatuta bizitzea aukeratzen duten 18 urtetik aurrerako pertsonentzako bizimodu independentea egin ahal izateko laguntzak.

B. Autonomia pertsonala errazteko produktu lagungarriak erosteko diru laguntzak, edo halako produktuak lagatzea:

Foru dekretu honen ondorioetarako, hauek dira produktu lagungarriak (oraindaino «laguntza teknikoak» zeritzenak): «pertsonaren urritasunak, jarduteko mugak edo parte-hartzeko murrizpenak prebenitzeko, konpentsatzeko, kontrolatzeko, arintzeko edo neutralizatzeko berariaz egina edo merkatuan eskuragarria den edozein produktu, gailuak, ekipoak, tresnak, teknologia eta softwarea barne».

Produktuen sailkapena, betetzen duten eginkizuna irizpidez hartuta, honako hau da:

— Mugikortasun pertsonalerako eta garraioetara iristeko produktuak.

— Hirigintza eta eraikuntza arloko irisgarritasuna bideratzekoak.

— Babes eta zaintza pertsonalekoak.

— Etxeko altzariak eta egokitapenak.

— Komunikazioa, informazioa eta seinaleak.

Bestalde, laguntza hauek berreskuragarriak edo berreskuraezinak izan daitezke:

Produktu lagungarri berreskuragarriak dira pertsona batek baino gehiagok, batak bestearen ondoren, erabil ditzaketenak, toki batetik bestera eramateko garraio kostua besterik ordaindu gabe.

Produktu lagungarri berreskuraezinak dira, produktuaren izaeragatik beragatik, pertsona batengandik beste batengana eskualdatu ezin direnak, eta horregatik erabiltzaile bakar baten zatitza balio dutenak (edo bat baino gehiagorentzat aldi berean). Etxeak egokitzeko obra zibilak eta produktu lagungarri berreskuragarriak erabili ahal izateko obrak ere produktu lagungarri berreskuraezintzat hartuko dira.

Etxean programaren bitartez finantzatzeko diren produktu lagungarrien katalogoa foru dekretu honen 2. eranskinean jasota dago.

*3. artikulua. Laguntzak eskuratzeko bete beharreko eskakizunak.*

Etxean programara bil daitezke segidan aipatzen diren eskakizunak betetzen dituzten pertsona ezgaituak edo mendekotasun egoeran daudenak:

a) Eskakizun orokorrak:

— Eskatzaileak Gipuzkoako Lurralde Historikoan erroldatuta egon behar du, gutxienez urte bat lehenagotik.

A los efectos de este decreto foral se considerará persona con discapacidad o en situación de dependencia a la calificada como tal por la Diputación Foral de Gipuzkoa o por otra administración competente en aplicación de los baremos de valoración previstos en la normativa vigente.

*Artículo 2. Definición y tipología de las ayudas subvencionables.*

Se establece la siguiente definición y tipología de ayudas subvencionables:

A. Ayudas económicas para la financiación de programas de atención individual:

— Ayudas para el acceso o la realización de programas de integración.

— Ayudas para favorecer la vida independiente de personas mayores de 18 años que renuncien a utilizar recursos residenciales y opten por vivir solos o formando su propia unidad familiar.

B. Ayudas económicas para la compra de productos de apoyo para favorecer la autonomía personal, o cesión de los mismos:

A los efectos de este decreto foral se entiende por productos de apoyo (hasta ahora conocidos como «ayudas técnicas») «cualquier producto (incluyendo dispositivos, equipos, instrumentos, tecnologías y software) fabricado especialmente o disponible en el mercado, para prevenir, compensar, controlar, mitigar o neutralizar deficiencias, limitaciones en las actividades y restricciones en la participación».

Estas ayudas se clasifican, por su función, de la siguiente forma:

— Para la movilidad personal y acceso al transporte.

— Para la accesibilidad urbanística y de la edificación.

— Para la protección y el cuidado personal

— Mobiliario y adaptaciones para vivienda.

— Para la comunicación, la información y la señalización.

Asimismo, estas ayudas pueden tener el carácter de recuperables o de no recuperables.

Se consideran recuperables aquellos productos de apoyo que pueden ser reutilizados por sucesivas personas y que pueden ser trasladadas de lugar sin más costes que los de transporte.

Se consideran no recuperables los productos de apoyo que por sus características son intransferibles y benefician, por tanto, a una única persona usuaria o excepcionalmente a varias de forma simultánea. Las obras civiles para adaptación de domicilios, así como las obras necesarias para el uso de productos de apoyo recuperables serán asimismo consideradas como no recuperables.

El catálogo de los productos de apoyo que se financian a través del Programa Etxean se recoge en el anexo 2 del presente decreto foral.

*Artículo 3. Requisitos que deberán reunir las personas beneficiarias para la obtención de las ayudas.*

Podrán acceder al programa Etxean las personas con discapacidad o en situación de dependencia que reúnan los siguientes requisitos:

a) Requisitos de carácter general:

— La persona solicitante deberá estar empadronada en el Territorio Histórico de Gipuzkoa con una antigüedad mínima de un año.

— Eskatzaileak %33ko edo gehiagoko ezgaitasuna duen edo mendekotasun egoeran dagoen pertsonaren kalifikazioa izan behar du.

b) Eskakizun espezifikoa: Laguntza mota bakoitzaren zatitza ezarrita daude foru dekretu honen 1. eta 2. eranskinetan.

#### 4. artikulua. Onuradunen diru ekarpena.

1. Bizimodu independentearen aldeko programak finantzatzeko diru laguntzen eskatzaileei, beren ahalmen ekonomikoaren zentzuzko den, hainbestean murriztuko zaie laguntzaren zentzuzko den, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta laguntza sustatzeko 2006ko abenduaren 14ko 39/06 Legeak ezarritako prestazio ekonomikoak arautzen dituen Diputatuen Kontseiluaren erabakiari jarraituz.

2. Foru dekretu honen 2. eranskinaren arabera produktu lagungarriak eskuratzeko eta obrak egiteko onuradunak diru ekarpenik egin behar badu, finantzaketan onuradunaren ahalmen ekonomikoaren kontuan hartuko da, 3. eranskineko baremoari jarraituz.

#### 5. artikulua. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.

1. Laguntza eskaerak egin ditzakete, edo pertsona interesatuek zuzenean, edo haien ordezkari direla legezko edozein bidetatik kreditatzen dutenek. Nolanahi ere, bai eskaera, bai dagokion espedientea, laguntza mota bakoitzerako eskakizunak betetzen dituen pertsona ezgaituaren edo mendekotasun egoeran dagoenaren izenean egingo dira.

2. Eskaerak eredu normalizatua aurkeztu beharko dira interesatua bizi den udalerriko gizarte zerbitzuetan. Udaleko gizarte zerbitzuek aztertuko dute foru dekretu honetan Etxean programako laguntzak eskuratzeko 3. artikuluan ezarritako dauden eskakizun orokorrak eta 1. eta 2. eranskinetan ezarritako dauden eskakizun espezifikoa betetzen diren. Udal zerbitzu horiek Gizarte Politikako Departamentura bidaliko dituzte eskaerak, eskakizunak betetzen direla egiaztatzen duten agiriekin batera, baldin egiaztatzen hori aipatu den departamentuan jasota ez badago.

Etxean programaren inguruko informazioa Gizarte Politikako Departamentuaren web orrian eta norberaren udaleko gizarte zerbitzuetan egingo da.

3. Eskaera egiten dutenek ez dituzte aurkeztu beharko ordurako Gizarte Politikako Departamentuaren esku dauden dokumentuak, hala xedatzen baitu Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak 35.f) artikuluan. Halakoetan, eskaera orrian adierazi beharko da zein egunetan eta organotan edo bulegotan aurkeztu ziren dokumentuak, edo zein organok eta noiz egin zituen, betiere bost urte baino gehiago igaro ez badira prozedura hura bukatu zenetik. Dokumentazio hori eskuratzeko modurik ez badu, Gizarte Politikako Departamentuak eskatzaileari eska diezaioke dokumentua aurkezteko edo, bestela, dokumentu horren bidez egiaztatzen diren eskakizunak beste bitarteko batzuk erabiliz egiaztatu ditzala.

4. Eskaera orriak edo harekin aurkeztu beharreko dokumentazioak identifikazio datu guztiak ez baditu, akatsen bat badu edo osorik ez badago, eskatzaileari eskatuko zaio aurkez dezala falta den informazioa edo zuzen dezala antzemandako akatsa hamar eguneko epean, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, hala xedatzen baitu Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, 71.1 artikuluan eta 42.1 artikuluan.

— Haber sido calificada como persona con discapacidad igual o superior al 33% o como persona en situación de dependencia.

b) Requisitos específicos: Los establecidos para cada tipo de ayuda en los anexos 1 y 2 del presente decreto foral.

#### Artículo 4. Aportaciones de las personas beneficiarias.

1. Las personas que soliciten ayudas económicas para la financiación de programas de vida independiente verán minorada la ayuda en función de su capacidad económica, siguiendo lo establecido en el acuerdo del Consejo de Diputados regulador de las prestaciones económicas derivadas de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.

2. Los productos de apoyo y las obras de adaptación que de acuerdo al anexo 2 conllevan aportación económica de la persona beneficiaria, serán financiados conforme a su capacidad económica según lo establecido en el baremo del anexo 3 del presente decreto foral.

#### Artículo 5. Forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes.

1. Las solicitudes las suscribirán las personas interesadas directamente o las personas que acrediten su representación por cualquier medio válido en derecho. En cualquier caso, tanto la solicitud como el expediente correspondiente irán referidos a la persona con discapacidad o en situación de dependencia que cumpla los requisitos establecidos para solicitar cada tipo de ayuda.

2. Las solicitudes en modelo normalizado deberán presentarse a través de los servicios sociales del municipio de residencia, quienes valorarán el cumplimiento de los requisitos generales de acceso a las ayudas del Programa Etxean establecidos en el artículo 3 y los requisitos específicos recogidos en los anexos 1 y 2 del presente decreto foral. Los citados servicios municipales remitirán las solicitudes al Departamento de Política Social, acompañadas de la documentación que justifique el cumplimiento de los requisitos cuando el cumplimiento de dichos requisitos no conste ya en el Departamento.

La información relativa al Programa Etxean estará disponible en la página web del Departamento de Política Social y en los servicios sociales del municipio de residencia.

3. Las personas solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que ya obren en poder del Departamento de Política Social, de conformidad con lo previsto en el artículo 35.f) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, debiendo indicar en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos, siempre y cuando no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan. En los supuestos de imposibilidad material de obtener la documentación, el Departamento de Política Social podrá requerir a la persona solicitante su presentación o, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento.

4. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la persona solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, para que, en el plazo de diez días, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 42.1 de la citada Ley.

5. Laguntzen berezitasuna eta unibertsaltasuna dela eta –eskakizunak betetzen dituzten pertsona guztientzat baitira–, ez da beharrezkoa laguntzak emateko deialdirik egitea, eta eskaerak edonoz aurkez daitezke, betiere arau hauek indarrean diren bitartean.

*6. artikulua. Laguntzak emateko prozedura.*

1. Foru dekretu honen 5. artikuluko 5. atalean adierazita-koak kontuan hartuta, laguntzak emateko prozedura esleipen zuzena izango da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak 20.3.c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

2. Produktu lagungarriak emateko eta horien erabilera lagatzeko baldintza bereziak:

a) Produktu lagungarriak eman baino lehenago, pertsonak bere kasa moldatzeko zer premia zehatz dituen aztertuko da, mendekotasun edo ezgaitasunaren larritasuna kontuan hartuta. Horregatik, laguntza eman ahal izateko Etxetek foru zerbitzuaren aldeko orientazio txostena beharko da beti aurretik.

b) Behar den aparatua edo gailua arrunta baldin bada, aparatu edo gailuari eskatzaileak erabiltzeko egin behar zaizkion egokitzapenen gainkostua bakarrik estaliko du laguntzak.

c) Ez da emango laguntzarik eskaera egin aurretik eta Etxetek zerbitzuaren aldeko orientazio txostena eduki aurretik eskuratutako produktuarentako, ezta ordurako hasitako obretarako ere.

d) Eskatzaileak produktu lagungarriaren edo egin beharreko obren aurrekontua aurkeztu beharko du, Etxetek zerbitzuak eskatzen diotenean.

e) Laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izango eskatutako produktuaren baliokideen merkatuko batez besteko prezioa baino handiagoa.

f) Foru dekretu honen 3. eranskinean zehazten den laguntza portzentajea aplikatzeko, laguntza mota bakoitzarentzat 2. eranskinean adierazten den gehieneko zenbatekoa hartuko da oinarritzat, gehien-gehienez.

*7. artikulua. Produktu lagungarri berreskuragarriak.*

1. Gizarte Politikako Departamentuak honela ebatzi ahal izango ditu produktu lagungarri berreskuragarrien eskaerak:

— Biltegian duen produktu lagungarriaren erabilera lagatuz.

— Erabiltzaileari produktua erosteko diru laguntza emanaz, biltegian erabiltzeko laga diezaiokeen alerik ez duenean.

Kasu batean zein bestean aparatua erabili beharreko aldia amaitzean itzultzeko konpromisoa eskatuko zaio.

2. Produktu lagungarri berreskuragarriei dagokienez:

— Produktu berrien lehen bi urteetako bermea aparatuaren fabrikatzailearen gain joango da.

— Gizarte Politikako Departamentuaren Etxetek zerbitzuaren ardura izango da produktu lagungarri berreskuragarriak jasotzea, prest jartzea eta entregatzea. Etxetek zerbitzuaren kontura egingo dira horrelako produktuen ohiko erabilpenak eragindako matxuren konponketak ere, erabiltzailearen esku

5. Dado el carácter singular de dichas ayudas y la vocación universal de las mismas para todas aquellas personas que cumplan los requisitos establecidos, no procede la realización de convocatorias para su concesión, pudiendo presentarse las solicitudes en cualquier momento en tanto las presentes normas se encuentren en vigor.

*Artículo 6. Procedimiento de concesión*

1. Teniendo en cuenta las circunstancias señaladas en el apartado 5 del artículo 5 del presente decreto foral, el procedimiento para otorgar las ayudas será el de concesión directa, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 20.3.c) de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Condiciones especiales de la concesión y cesión en uso de los productos de apoyo:

a) La concesión de los productos de apoyo se hará previa valoración de las necesidades concretas de desenvolvimiento de la persona, teniendo en cuenta la severidad de su dependencia y/o discapacidad. Por ello, para la concesión será necesaria siempre el informe de orientación previa favorable del servicio foral Etxetek.

b) En el caso de valorarse la necesidad de un aparato o dispositivo de uso común, la ayuda cubrirá únicamente el sobrecoste debido a la adaptación para su uso por la persona solicitante.

c) En cualquier caso, no se concederán ayudas para productos adquiridos o para obras iniciadas con anterioridad a la solicitud y al informe de orientación favorable del servicio foral Etxetek.

d) El solicitante presentará presupuesto de aquellos productos de apoyo u obras a realizar cuando le sea indicado por el servicio foral Etxetek.

e) Las cantidades a conceder en ningún caso podrán exceder el precio medio de mercado para productos equivalentes al solicitado.

f) La cantidad que se tomará como base para aplicar el porcentaje de ayuda (anexo 3) no será superior al importe máximo establecido en el anexo 2 de este decreto foral para cada tipo de ayuda.

*Artículo 7. Productos de apoyo recuperables.*

1. El Departamento de Política Social podrá resolver la solicitud del producto de apoyo recuperable del siguiente modo:

— Mediante la cesión en uso de un producto de apoyo, proveniente del almacén.

— Concediendo a la persona solicitante una subvención para la compra del producto, cuando no hubiera existencias disponibles para su cesión en uso.

En ambos casos se exigirá el correspondiente compromiso de devolución del aparato una vez terminado el periodo de uso necesario.

2. En lo que respecta a los productos de apoyo considerados como recuperables:

— La garantía de los dos primeros años de los productos nuevos la cubrirá el fabricante del aparato.

— El servicio foral Etxetek del Departamento de Política Social se ocupará de la recogida, de la puesta a punto y de la entrega de los productos de apoyo recuperables, haciéndose cargo de los gastos de reparación de averías de funcionamiento que una utilización habitual de estos productos pudieran oca-

jarri ondorengo bi urteetan, lagatako aparatua bada. Handik aurrera, eta produktua gaizki erabiltzeagatik matxuratu bada noiznahi, erabiltzailearen kontura joango dira konponketa gastuak. Oso kasu berezietan izan ezik, aparatuen ohiko mantentze gastuak (bateriak edo gurpilik aldatzea, edo erabilpenak ahitzen edo higatzen dituen elementuen ordezkokoak jartzea, eta abar) erabiltzailearen kontura izango dira.

— Produktu lagungarri berreskuragarriak, Gipuzkoako Foru Aldundiarenak izaki, ezingo dira Gipuzkoatik kanpora eraman luzarorako. Erabiltzaileak horren beharra baldin badu, Gizarte Politikako Departamentuaren berariazko baimena izan beharko du aurretik.

#### 8. artikulua. *Finantzazioa.*

Etxean programan sartzen diren diru laguntzak eta produktu lagungarriak eskuratzea finantzatu, eskaera egiten den urteko Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorretan xede horietarako izendatutako kredituen kontura finantzatu dira, urtean zehar kreditu horiek gehitu daitezkeela kontuan hartuta. Aurrekoa gorabehera, ekitaldi ekonomikoa amaitutakoan, izapidetzen hasi eta amaitzeke badago diru laguntza jasotzeko baldintza guztiak betetzen dituen eskaerarik, edo aurrekontu baliabideak agortu direla-eta onartu ezin izan denik, eskaera horrek hurrengo urteko aurrekontuen kontura jaso dezake diru laguntza, betiere aurrekontuetan nahikoa baliabide baldin badago.

#### 9. artikulua. *Prozedura antolatu eta izapidetzeko organo eskuduna.*

Prozedura izapidetuko duen organoa Gizarte Politikako Departamentuko Gizarte Zerbitzuetako Laguntza eta Sarrera Zerbitzua izango da, eta horrek ofizioz burutuko ditu ebazpen proposamena egiteko aintzat hartu behar diren datuak zehazteko, jakiteko eta egiaztatze beharrezkoak dituen jarduketa guztiak.

#### 10. artikulua. *Ebazpena.*

1. Ebazpen proposamena ikusirik, Gizarte Politikako Departamentuko zuzendaritza nagusi eskudunak erabakiko du eskatutako prestazioa eman ala ukatu.

2. Prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskaera udaleko gizarte zerbitzuetan aurkeztu den egunetik kontatzen hasita. Epea bukatu eta ez bada ebazpenik berariaz jakinarazi, interesatuek eskaera ezetsi zaiela ulertu beharko dute.

#### 11. artikulua. *Diru laguntzen justifikazioa.*

1. Gizarte Politikako Departamentuak laguntzaren justifikazioa jaso ondoren tramitatuko du laguntza ordaintzeko espedientea.

2. Laguntzaren justifikazio gisa, onuradunak laguntzaren oinarri izandako arrazoiak eta gastuak egiaztatze dokumentazioa aurkeztu behar du; zehazki, gutxienez, hau:

a) Diru laguntzaren xede izandakoa eskaeran azaldu bezala bete duela egiaztatzen duen dokumentazioa.

b) Gastuen egiaztariak:

— Oro har, diru laguntzaren xedea betetzeak ekarritako gastuen fakturak, guztira eskaeran aurkeztutako gastuen aurrekontua adinako zenbatekoa osatzen dutenak. Jatorrizko fakturak bakarrik onartuko dira, edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak konpultsatutako fotokopiak.

— Los productos de apoyo recuperables, siendo propiedad de la Diputación Foral de Gipuzkoa, no podrán trasladarse de forma permanente fuera de Gipuzkoa. En caso de necesidad, la persona usuaria deberá contar con la autorización previa y expresa del Departamento de Política Social.

#### Artículo 8. *Financiación.*

Las ayudas económicas y la adquisición de los productos de apoyo integrados en el Programa Etxean se financiarán con cargo a los créditos consignados para dichas finalidades en los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa del ejercicio en que se efectúe la solicitud, sin perjuicio de los incrementos que puedan realizarse a lo largo de dicho ejercicio. No obstante lo anterior, si a la finalización del ejercicio existiesen solicitudes que cumplen los requisitos necesarios para recibir subvención cuya tramitación no hubiese terminado o que no pudieran estimarse por falta de disponibilidad presupuestaria, dichas solicitudes podrán recibir subvención con cargo al presupuesto del ejercicio siguiente, siempre en función de las disponibilidades presupuestarias existentes.

#### Artículo 9. *Órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

El órgano instructor del procedimiento será el Servicio de Atención y Acceso a los Servicios Sociales del Departamento de Política Social, que realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formular la propuesta de resolución.

#### Artículo 10. *Resolución de concesión.*

1. A la vista de la propuesta presentada, la Dirección General competente del Departamento de Política Social resolverá la concesión o denegación de la prestación solicitada.

2. El plazo máximo para dictar y notificar la resolución será de 6 meses, contados desde la fecha de presentación de la solicitud en los servicios sociales municipales. El vencimiento de dicho plazo máximo sin haberse notificado resolución expresa, legítima a las personas interesadas para entender desestimada la solicitud.

#### Artículo 11. *Justificación de las ayudas económicas.*

1. La tramitación del expediente de pago se realizará siempre previa remisión al Departamento de Política Social de la correspondiente justificación.

2. Para la justificación de la ayuda concedida, la persona beneficiaria deberá presentar la documentación acreditativa del hecho que motivó su otorgamiento y de los gastos ocasionados, y en todo caso, como mínimo, lo siguiente:

a) Documentación acreditativa de la ejecución del objeto de la subvención según la solicitud presentada en su día.

b) Justificantes de gasto:

— Como norma general, facturas de los gastos originados con motivo de la realización del objeto de la subvención por una cuantía equivalente al importe total del presupuesto de gastos presentado. Se aceptarán sólo facturas originales o, en su defecto, fotocopia compulsada por el Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Beste erakunde publiko nahiz pribatuetatik jasotako laguntzak banan bana aipatzen dituen ardurapekoadierazpena. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren laguntzaz aparte ez bada beste laguntzarik jaso, berariaz adieraziko da hori.

3. Produktu lagungarrietarako laguntzak justifikatzeko epea, emanez geroztik hasita, hiru hilabete izango da. Epe horretan ez bada justifikatu, laguntza emateko erabakia atzera botako da eta, diru laguntza jaso bada, itzuli egin beharko da.

#### 12. artikulua. Diru laguntzaren likidazioa.

1. Hasieran aurkeztutako gastuen aurrekontua baino gastu handiagoak egiaztatzeak ez du emango eskubiderik, inola ere, onartutako diru laguntza baino handiago bat jasotzeko.

2. Diru laguntzaren justifikazio gisa jasotako dokumentazioa aztertuta, zerbaitengatik ikusten baldin bada ordaindutakoa baino laguntza txikiagoa dagokiola edo laguntza atzera bota behar dela, eta ondorioz laguntza zati bat edo osoa itzuli behar duela, orduan, laguntza jakin horren likidazio ebazpena emango da justifikazioa aurkezteko epea amaitu ondorengo bi hilabeteen barruan, eta, dirurik itzuli behar izanez gero, horretarako bi hilabete emanez.

#### 13. artikulua. Onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.

1. Onuradunek laguntzak onartzeak Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritako betebeharrak onartzea dakar.

2. Zehazki, onuradunek betebeharrak hauek dituzte:

a) Gizarte Politikako Departamentuak foru dekretu hone-tako laguntzei buruz eskatzen dien informazio guztia ematea.

b) Gipuzkoako Foru Aldundiari baimena ematea fitxategi automatizatuetan dauden datu pertsonalak, ekonomikoak, sanitarioak eta sozialak erabil dituzan Gizarte Politikako Departamentuaren eginkizunetarako nahiz beste xede batzuetarako, hala nola, estatistikak egiteko eta ikerketa zientifikorako, datu pertsonalen babeserako araudiak aurreikusten duenaren barnean.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari baimena ematea Foru Aldundiko beste departamentu edo beste administrazio publiko batzuek fitxategietan duten informazioa eskatu ahal izateko, eskatzaileak emandako datuak egiaztatze aldera, eta diru laguntza eskuratzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar beste kontsulta egiteko.

d) Gizarteratze programetan sartzeko edo jarraitzeko eta bizimodu independentea errazteko foru dekretu honetan arautzen diren diru laguntzak jasotzen dituztenek gutxienez urtean behin egiaztatu behar diote Gizarte Politikako Departamentuari laguntza horiek esandako xederako erabiltzen dituztela.

e) Autonomia pertsonala errazteko produktu lagungarriak hartu dituztenek, hartutako produktua Etxetek foru zerbitzuari itzultzeko konpromisoa izenpetu beharko dute.

— Declaración responsable con mención expresa de ayudas recibidas de otras instituciones tanto públicas como privadas. Caso de no haberse recibido ayuda alguna diferente a la del Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa, se manifestará expresamente tal circunstancia.

3. El plazo de justificación de los productos de apoyo será de 3 meses a partir de la fecha de concesión. Transcurrido este periodo, la concesión de la ayuda se revocará, procediendo, en su caso, al reintegro de la subvención percibida.

#### Artículo 12. Liquidación de la subvención.

1. Bajo ninguna circunstancia la justificación de gastos superior al presupuesto de gastos inicialmente presentado dará derecho a incremento alguno en la subvención inicialmente reconocida.

2. Cuando analizada la documentación remitida a los efectos de justificación de la subvención proceda, por el motivo que fuera, la minoración del abono de la misma o su revocación total y en su caso, la obligación de reintegro de la totalidad o parte, se dictará en el plazo de dos meses desde la finalización del plazo de presentación de justificantes, resolución de liquidación individualizada, otorgando, en su caso, un plazo de dos meses desde la recepción de la misma para proceder al reintegro correspondiente.

#### Artículo 13. Obligaciones y compromisos de las personas beneficiarias.

1. La aceptación de las ayudas por parte de las personas beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones vigentes establecidas con carácter general en el artículo 13 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. En particular, las personas beneficiarias estarán obligadas a lo siguiente:

a) Facilitar cuanta información les sea requerida por el Departamento de Política Social en relación a las ayudas objeto del presente decreto foral.

b) Autorizar a la Diputación Foral de Gipuzkoa para que los datos de carácter personal, económicos, sanitarios y sociales que se integran en ficheros automatizados, puedan utilizarse para las funciones propias del Departamento de Política Social, así como para otros fines tales como la producción de estadísticas o la investigación científica, en los términos previstos por la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal.

c) Autorizar al Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa para que verifique los datos aportados por la persona solicitante y que se encuentren en ficheros de otros departamentos de la Diputación Foral o de otras administraciones públicas, así como a realizar cuantas consultas sean necesarias para la comprobación del cumplimiento de los requisitos de acceso a las ayudas objeto del presente decreto foral.

d) En el caso de las ayudas económicas para el acceso o la realización de programas de integración y para favorecer la vida independiente que regula el presente decreto foral, las personas beneficiarias estarán obligadas a justificar ante el Departamento de Política Social -al menos anualmente- la utilización de dichas ayudas para los fines para los que hayan sido concedidas.

e) En el caso de la cesión de productos de apoyo para favorecer la autonomía personal, las personas que accedan a ellas estarán obligadas a suscribir un compromiso de devolución del dispositivo a Etxetek, servicio foral de productos de apoyo.

f) Horretaz gainera, produktu lagungarriak hartu dituztenek hartutako ondasunak behar bezala erabiltzeko betebeharra dute, fabrikatzailearen jarraibideei eta Etxetek zerbitzuak emandako orientabideei jarraituz, eta egoera onean egon daitezzen zaindu behar dituzte eta berreskuragarriak direnak itzuli, gehiago behar ez dituztenean.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du inolako erantzukizunik izango aparatu horiek erabiltzetik etor daitezkeen istripuetan; erabiltzailearena izango da aparatu horien erabilpenari dagokion erantzukizun guztia.

*14. artikulua. Laguntzen bateragarritasun eta bateraezintasunak.*

1. Gizarteratze programetan sartzeko edo jarraitzeko diru laguntzak bateraezinak dira xede bereko beste edozein laguntzarekin.

